

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA


SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak herritarren laguntza- eskaintzak zentralizatuko ditu errefuxiatuak hartzeko

948 012 012 telefono-zenbakira dei eginez edo navarra@navarra.es helbidera idatziz egin ahalko dira

Viernes, 04 de septiembre de 2015

Nafarroako Gobernuak bere [herritarren arreta-telefono](#)aren bidez, 948 012 012 (edo 012 telefono-zenbakia telefoniako tarifa finkoa ez dutenentzat: deia-aren kostua 0,34 €+BEZa), edo navarra@navarra.es helbide elektronikoren bidez zentralizatuko ditu herritarren laguntza-eskaintzak Siriako gatazkako errefuxiatuak hartzeko, datozen asteotan Foru Komunitatera heldu daitezkeen errefuxiatuak. Operatibo guztirako Espainiako



Gazte immigrante bat.

Gobernuaren baimenak behar direla kontuan hartuta, une hauetan pertsona horiek noiz iritsiko diren ezin da jakin.

Atzo eguerdian Nafarroako Gobernuak hartutako erabakiaren berri jakin zenetik, Nafarroako familia asko prest agertu dira gerra nahiz miseriatik ihes egiten ari diren pertsona horiei arreta emateko lan horretan laguntza emateko. Aipatutako erabaki horren arabera, Foru Komunitatea Gobernu Zentralaren zerbitzura jarri da errefuxiatu horien harrera berehala aktibatuzeko.

Lehen une horretan, Eskubide Sozialetako lehendakariordeak uste du harrera antolatzeke orduan, lehentasuna Foru Komunitateko edozein tokitan etxebizitza hutsak izatea dela, eta etxe horiek baldintza onetan egotea errefuxiatuen familia osoak bertan egon daitezkeen. Gainera, interesgarria ikusten du Nafarroan bizi diren eta arabieraren ezagutza aurreratua duten pertsonen zerrenda bat izatea, aterpean hartutako jendearekin komunikazioa hobetze aldera.

Herritarren laguntza eta elkartasuna bideratzeko neurri horrekin batera, Nafarroako Gobernuak honako hau gehitu du: datozen asteotan iritsitako errefuxiatuentzako arreta eraginkorra bideratuko duten GKE

nahiz gizarte-erakundeekin mahai bat abian jartzea.

Nafarroako Gobernuak eskerrak eman nahi dizkie dagoeneko errefuxiatu siriarren familiak duin hartzeko interesa eta laquntza eskaini duten pertsona guztiei.